

Fr. LUIS VILLASANTE
TOPONIMIA-JARDUNALDIAK

EUSKALTZAINBURUAREN HASIERAKO HITZAK

J. Ramón Guevara, Jaun Txit Gorena

Euskaltzaindiko Jaunak

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntz-Politikako eta Herri Ardularitza Erakundearen Ordez-
kariak

Jardunaldietara etorritako irakasle eta ikasle bikainak

Jaun-Andreak:

Toponimi-Jardunaldiok Jaurlaritza eta Euskaltzaindiaren arteko har-emanen fruitu dira. Beroien garrantziaz ez dut uste luze hitz egin beharra dagoenik.

Oker ez banago, Lizardik dakar nunbaiten honako bereizketa jator eta guztiz aukerako hau: *basa-lur* eta *giza-lurren* arteko bereizketa, alegia. Basa lurrak dira gizonak zapaldu ez dituenak, harentzat arrotz direnak, hark landu eta beretu ez dituenak. Giza lurrak, berriz, gizonak menderatu dituenak, bizilekutat edo lantegizat hartu dituenak. Gizonak bere irudi antzera moldatu ohi du eskutan hartzen duen guztia, denari harrarazten dio bere marka. Lurrari ere bai, noski.

Eta hau da, besteak beste, giza lurretan ageri den gizonaren marka: bataiatuak baitira, izena baitute; arrunt eta etxeko egiten zaigun izenaz izendatzen baititugu.

Bai. Gizonak bere bizilekutat edo lantegizat hartuak dituen lurrak izenez josiak ageri dira. Izenok mila albiste eta xehetasun ekartzen digute toki horiei buruz. Izen horietako batzuk oso zaharrak dira, beste batzuk berriak; batzuk argiak eta garde-
nak, beste batzuk ulerkaitz eta misterioz ernari daude guretzat.

Hala gertatzen da, behintzat, gure Euskal Herrian.

Euskararen kasuan Toponimiaren alor honek aparteko garrantzia duela ikus-
teko aski izango da gogoeta bat edo beste egitea.

Askotan toponimia izan da hondamenditik salbatu den euskal lekukotasun
ia bakarra. Gogora dezagun euskara, nahiz eta hizkuntza zaharra izan, idatzizko zere-
ginetan ez dela beranduraino erabili. Toki-izenok, ordea, askotan latinez edo erroman-
tzez idatzitako dokumentuetan gorde dira. Toki-izen horietako asko eta asko behiala
euskaldun izan eta gaur euskaldun ez diren lurretan bizirik diraute oraindik. Beste
asko, berriz, gaur ere euskaldun direnen ezpainetan dabilta.

Toponimiako mundu guzti hau behar bezala eta lehen bai lehen jaso eta
biltzeko, arrazoi guztiz errutsuak daude.

Lehenik, Toponimia euskal arimari dagozkion puntu nagusietan nagusie-
netako bat delako. Bigarrenik —eta arestian esan dudanez— askotan hondamenditik
salbatu den gauza bakarra edo ia bakarra berau delako. Hirugarrenik, gaur eguneko
zirimola, ekaitz eta aldaketekin toponimia gal zorian aurkitzen delako. (Eta hemen ez
da tokitik kanpora egongo Ekologiaren hondamenak toponimiarena ere berekin ekar
dezaakeela gogoratzea). Eta laugarrenik, gure hizkuntzan dauden ilungune asko eta as-
ko, misterio asko argitzeko giltza toponimiak eskain diezagukeelako.

Baina toponimia-bilketa lan hau ez da lehen kolpean dirudien bezain erraza
—ongi egingo bada behintzat—. Biltzaileak beharko du oinarriko prestakuntza ba-
ten jabe izan. Behar du eremu honetan azaltzen diren katramilen berri jakin. Behar
du jakin zein diren bidera irtego zaizkion oztopoak eta horiek gainditzeko era.

Adibidez, izkribu zaharretan agertzen diren toponimoak, ongi eta zuzen,
hau da, fidelki irakurtzen beharko du jakin: hau da lehenbiziko eta noraezko baldintza.

Hori, ordea, izkribuak pixka bat zaharrak direnean, paleografi eskola zerbait ikasi gabe ezin daitekeena da.

Eta bizidun lekukoen ezpainetatik hitzak zuzenean hartzen ditugunean, bada beste oztopo jakin batzuk: askotan aldaera edo «variante» bat baino gehiago dutela hitzok; zer egin orduan? Lekukoak ematen digun forma, laburtua edo desitxuratua egon daiteke inoiz; agian kateari maila edo eraztun bat edo gehiago falta zaio, etab. atab.

Ez gara hasiko eremu honetan azaltzen diren auzi eta zailtasunak banan-banan aipatzen, eta gutiago beroien irtenbidea zein datekeen esaten. Hain zuzen, horretarako xe dira Jardunaldi hauek, hots, giza landare berriengan batez ere lan honetarako bokazioak pizteko, langile iaio eta ongi ikasiak prestatzeko, asmoz eta jakitez ongi gai-tuak diren langileak aterarazteko.

Baina aipatu baizik egingo ez badut ere, aipa dezadan zelatan egon ohi den arriskuak, hots, aurre eritzia, prejuizioa. Bai. Toki-izenen biltzaileak beharko du aurre-eritzietarik bere burua gorde, bilketa-lana zuzen eta leialki egingo baldin badu. Zein dira maizenik gure artean gertatzen diren aurre eritziak? Oker ez banago, bi, batez ere: etimologikeria eta garbikeria.

Denok nahi dugu, noski, hitzen etorkia jakin, hitzen esanahia desestali; baina buruan ipintzen bazaigu interpretazio bat, suposatua bakarrik, ez frogatua, eta, hori egiztatu nahirik, ematen zaizkigun datuak hipotesi horren zerbitzutan aldatu egiten baditugu, orduan, bistan da, okerreko bidea hartu dugu. Hitz baten etimologia argitzea langintza honen azken emaitza izan daiteke (eta agian helburu hori ez da beti lortuko) baina azterketa-lana ongi eramango bada, honelako hipotesi edo aurreeritziak ez du sekulan aginpidea hartu behar. Esan nahi dut: datu-bilketak beti ere leiala izan beharko du; ez dira datuak hipotesi horren nahierara aldatu edo saihestatu behar.

Berdin edo antzera esan behar da purismoari buruz. Euskaldunak barne munitaraino sartua du bere hizkuntza guztiz apartekoa eta besteak ez bezalakoa dela. Eta ideia honekin txit elkaturik joaten da beste bat, hots, euskarak ez duela beste hizkuntzekin har-emanik izan, eta, beraz, Euskal Herrian den oro euskara huts garbiaren bidez argitu behar dela.

Aspalditxotik hizkuntzalari jakintsu eta etnologoek —hala nola H. Schuchardt, G. Rohlfs, J. Caro Baroja eta abarrek— frogatu eta agertzera eman dute euskarak beste hizkuntzen eragina jasan izan duela, bereziki latinarena. Baina ez dut uste egia hau gure artean aski erroztatu denik.

Historitasuna da gizonaren lege jakin bat, eta hizkuntza ere, gizonaren gauza denez, lege horren menpean datza. Hizkuntzak ez daude behin ere geldirik, eta har-emanak dituzte bata besteekin. Gure bilketetan horrelakorik nabaitzen badugu, ez dugu muzinik egin behar.

Kontuan eduki behar dugu, azkenik —eta hori ere ez dugu gogo onez onartzen— Euskal Herri deitzen dugun honetan oso aspaldidanik izan dela euskaraz landara beste hizkuntzarik, eta beste hizkuntza horiek ere beren arrastoak eta aztarnak utzi dituztela gure toponimian. Orain bada, zehaztasun eta objektibitate handiz egin behar da lan hau.

«Onomasticon Vasconiae» bildumaren atarikoan esan nuenez, bilketa-lana fidagarria izango baldin bada, aurre eritziak alde batera utzi behar dira. Hitzak zehazki eta diren bezala jaso, eta ez guk nola beharko luketen uste bezala. Iturriko ura lohitua eskaintzen badugu, ez du ezertarako balioko.

Kondaira lekuko, euskaldunak mendeetan zehar beste hizkuntza eta herri askorekin har-emanetan izan dira (zeltak, erromatarrak, arabeak, latinetik sortutako hizkuntzak etab.); guzti horien arrastoak izenetan egotea ez da harritzekoa eta horrek ez gaitu bat ere lotsatu behar.

Datuak leialki biltzen eta ematen direnean, orduan, eta orduan bakarrik, egin ahalko dugu jakintzak eskatzen duen bezalako azterketa-lana. Eta horrelako azteketek ustegabeko aurkikunde pozgarri eta miraritsuetara eraman gaitzakete.

Señoras, Señores:

De entre los numerosos actos públicos que con ocasión de centenarios, efemérides, etc., nuestra Academia ha solido celebrar, hay uno del que conservo un recuerdo particularmente grato y hasta entrañable. Fue en Abril de 1973. Se conmemoraba el segundo centenario de la muerte del H.^o Coadjutor jesuita Juan Bautista Gámiz Ruiz de Oteo, natural del pueblecito de Sabando, en la parte centro-oriental de la provincia de Álava. El P. J. Goikoetxea Maiza, ya fallecido, que preparó la edición de los inéditos dejados por el Hermano, explicaba a los lugareños que le oían entre sorprendidos y gozosos la enumeración que hace Gámiz en sus escritos de los términos toponímicos de su pueblo natal.

No faltaban exclamaciones del público que interrumpían al orador: «Ahora también decimos así». Otros no salían de su asombro, y decían: «No sabíamos que aquí se hubiera hablado nunca el vasco», etc.

Sí. En Sabando se habló el vasco, como se ve, hasta bastante tarde, pero desapareció del uso; ha quedado, en cambio, la toponimia. Y poco más.

Si cito este recuerdo es para subrayar el valor que representa la toponimia como testigo y fuente de la lengua. Este valor sube de punto en el caso del euskara, ya que tantas veces, por desgracia, la toponimia es casi lo único que se ha salvado del naufragio general; y si ésta no se recoge a tiempo, existe el peligro de que aun ella se pierda para siempre.

Volviendo al extremo Norte de la misma provincia de Álava, tenemos el lugar o pueblecito de Gordoia, que limita con los montes cercanos a Aránzazu. También aquí ha desaparecido el uso del euskara, pero la toponimia sigue en pie. Saliendo de dicho pueblo en dirección a los montes de Aránzazu, hay una fuente de agua sulfurosa que llaman «la fuente de *Gurpidaran*». *Gurpidaran*. ¡Qué nombre tan maravilloso y transparente!, si bien los actuales usuarios del mismo nada saben de lo que significa. «Valle del camino de las carretas» o algo por el estilo creo yo que es lo que significa.

Pero los nombres, esta cosa a la vez tan tenaz y tan frágil, están, como todas las humanas, sujetos a los avatares de la historia, y sobre todo en estos tiempos de grandes sacudidas y convulsiones, corren el peligro de ser barridos, como tantas otras cosas, por el vendaval. Recuerdo que en mi infancia solíamos ir a bañarnos a un brazo o afluente de la ría de Guernica, a un lugar concreto que llamábamos *Otxin*. Supongo que el nombre será variante de la palabra vasca *osin*. Pues bien. Muchos años más tarde le pregunté a un sobrino mío, también de Guernica. No conocía ya el término, y me dijo: «A ese lugar nosotros le llamamos *Miami*» ... Ya veis cómo cambia también la toponimia, no obstante su relativa resistencia a las innovaciones.

Algo me he ocupado en la recogida de toponimia de la zona de Aránzazu, en que me ha tocado vivir.⁽¹⁾ Y por ello soy consciente de las dificultades y problemas con que tropieza aquel que quiere trabajar en este sector.

Con frecuencia se encuentra uno con variantes del mismo término, abreviaciones o contracciones, etc. El recurso al documento escrito, cuando existe, puede prestarnos una ayuda preciosa. En los montes de Aránzazu que limitan con Álava existe una cumbre o puerto que los moradores actuales del barrio denominan *Gaillaur*, pero la historia de Aránzazu del siglo XVII escrita por el P. Gamarra llama a este sitio *Gain labor*, o sea, cumbre corta. Parece claro que el actual *Gaillaur* procede de un anterior *Gain labor*.⁽²⁾

En Oñate hay un caserío que hoy llaman *Amiño*, pero en los documentos aparece *Ariztimuño* = «colina del robledal». En Oñate también existe un barrio o lugar llamado *Santxilipizti*, que no es otra cosa que contracción de *Santxolopeztegi*. La fuente escrita, cuando existe, puede, pues, ayudarnos. Pero también hay que decir que puede desviarnos, suministrándonos una pista falsa. Así, por ejemplo, al célebre paso de San Adrián los viejos⁽³⁾ cegameses le llaman *Sandrati*. Ahora bien, *Sandrati* no parece que tenga nada que ver con *San Adrián*, y sí, más bien, con *Sancta Trinitate*. Algo semejante sucede también con el nombre de la famosa cueva de *San Elías*, en Araoz, que los viejos del lugar llaman *Saindailia* o *Sandali*. San Elías tiene todas las trazas de ser una falsa reconstrucción. La primitiva advocación habría sido Santa Julia. Sobre esto escribió el P. I. Omaechevarría.⁽⁴⁾

El recurso al principio de la «lectio difficilior» puede también orientarnos para no desechar la variante que por ser más rara o de difícil intelección, sentiríamos la tentación de descartar. En los montes de Aránzazu que limitan con Álava hay una cima que unos llaman *Zabalegi* y otros *Zabalenegi*. Guiándonos por el principio citado, la segunda parece más atendible. Igualmente, hay un puerto en los mismos montes, que unos denominan *Katillu iturri* y otros *Katel iturri*. Por lo mismo que el primero tiene trazas de ser producto de etimología popular, el otro parece preferible.

Respecto a la antigüedad de los nombres, diríase que se observan como estratos, es decir, nombres que tienen aspecto de ser muy viejos, al paso que otros parecen más bien nuevos o recientes. Así en la zona de Aránzazu existen nombres de aspecto bastante enigmático y que seguramente son antiguos: *Okola*, *Ixara*, *Dómitza*, *Keixtui* (= «un lugar sombrío»), *Duru*, *Artaso* (recuérdese el poema del P. Gandiaga «Artasoko Salmoa».)⁽⁵⁾

Otros topónimos parecen más bien recientes y transparentes: *Miru-bizkar*, *Miru-erreaka*, *Azkonarzuluetza*, *Urkitza*, *Axalkoba* o cueva del raposo, *Azkartza*, *Aitz arrate*, aunque otros llaman a este mismo sitio *Aítez arte*. Advertimos que *Arrate* en el habla local de Aránzazu es nombre común para designar un paso o puerta natural de montaña entre peñas.

Hay también algunos nombres que yo llamaría bromosos, festivos o irónicos —no sé cómo decir—. Una falda de los montes de Álava en la que tengo entendido que se trabajó en la obtención de carbón vegetal para vendérselo a los aliados en la primera guerra mundial o europea, se llama, según me dijo un casero que ya es difunto, *Astalantegi*, que yo interpreto como «lugar de trabajo de los burros». Da que pensar que el nombre fue impuesto por los propios trabajadores que se autodenominaron «burros» por lo penoso y rudo del trabajo que efectuaban.

Otros topónimos, como es sabido, expresan con gran propiedad alguna característica del lugar o sitio al que se refieren. *Unain mendi* = monte del vaquero, porque por allí merodeaba el encargado de guardar las vacas del pueblo de Oñate. En Mondragón hay una regata y barrio, *Meatz erreka*, es decir, regata que arrastra mineral; en castellano, aludiendo al mismo detalle, se le denomina Veneras.

En fin, bastan estas muestras para barruntar el panorama tan rico, abigarrado y prometedor, no exento de sorpresas maravillosas y descubrimientos lingüísticos, pero tampoco de escollos, que este mundo de la toponimia encierra.

Deseo del Gobierno Vasco es preparar gente joven que, convenientemente equipada y capacitada, pueda realizar esta labor de recogida de la toponimia. Con este fin ha querido se organizarasen estas jornadas. Huelga decir que la iniciativa es digna de todo encomio.

La Academia, que ya desde su fundación contó con una Comisión de toponimia y tuvo entre sus miembros a un distinguido investigador en el ramo, Luis de Eleizalde; que posteriormente ha llevado a cabo la confección del Nomenclátor de los pueblos y que con frecuencia tiene que evacuar dictámenes sobre la denominación castiza y genuina de una localidad, y que además ha creado últimamente la colección titulada «Onomasticon Vasconiae» para recoger en ella estudios monográficos de este sector, la Academia —decimos— no puede menos de tomar a su cuenta la organización de este cursillo, del que espera se seguirán frutos positivos.

Aprovechamos la ocasión para dar las gracias y la bienvenida a los profesores que nos van a honrar con sus lecciones, y a los alumnos y a los participantes todos de estas Jornadas.

NOTAS

(1) Cf. «Toki-izenak» in *Graziano Anduaga. Aitonaren Uzta*, «Kuliska Sorta» 47, Edit. Itxaropena, Zarautz 1961, pp. 23-33. «Nombres toponímicos de la región de Aloña y Katabera», *Aránzazu* (1955), 74-76. «Antzinako erromesbideak» *Aránzazu*, 48 (1969), 27, 74, 134, 190, 213. «Sobre el topónimo *Ga(i)llardi*, de Aránzazu» en *Homenaje a Odón de Apraiz*, pp. 401-405.

(2) Cf. *Scriptorium Victoriense* XII (1965), 169.

(3) Digo «los viejos» porque los jóvenes ya no conocen el término.

(4) Cf. Michelena, *Textos Arcaicos Vascos*, Madrid 1964, p. 96.

(5) Cf. Gandiaga, *Hiru gizon bakarka*.